

ZIUR JARDUKETA PLANA 2022

FUNDAZIOA

ZIBERSEGURTASUN INDUSTRIALEKO ZENTROA

1. DATU OROKORRAK

- **Sozietatearen izena:** ZIUR FUNDAZIOA
- **IFK:** G75203067
- **Helbidea:** Zuatzu Urola Eraikina 1
- **Herria:** Donostia.
- **Posta Kodea:** 20018
- **Harremanetarako telefonoa:** 943240988
- **Posta elektronikoa:** ziur@ziur.eus

2. XEDEA

ZIUR Fundazioaren fundazio estatutuen arabera, bere helburua da “lurraldeak dituen Fabrikazio Aurreratuaren arloko ahalmenak indartzea; bereziki, zibersegurtasun industrialaren arloan, teknologia-sektorearen garapena sustatuz, eta Gipuzkoako enpresen –bereziki, industria sektorekoen– nazioarteko kokapena eta lehiakortasuna indartuz”.

Zentroa abiaraztearen aldeko apustu garbia egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gipuzkoako lurraldean zibersegurtasunaren arloko enpresa kopuru handia biltzen da. Era berean, baditu zibersegurtasunean paper garrantzitsua duten bi unibertsitate eta Zientzia eta Teknologia Sarean sartuta dauden zentroak ere.

Beraz, Gipuzkoak lurralde berean biltzen ditu eskari potentziala, industria ehunak ezin badu ere bera bakarrik anbizio handiko babes sistematik garatu; zibersegurtasun arloan zerbitzuak ematen erreferenteak diren enpresa multzo bat du, eta baditu ezagutza sortzen duten hainbat eragile ere, 4.0 industriaren ingurunean mehatxuak prebenitzeko aurrerabidea ekar dezaketenak.

Aldeko ekosistema honen aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, ZIUR FUNDAZIOAREN bitartez, lidergo papera hartu behar du eta ekimenak bideratzen saiatu behar du industria sektorearen eta zibersegurtasun arloko teknologien mesederako, Lurraldea zaintza eta ezagutza arlo horretan mundu mailako erreferente gisa artikulatzeko.

Laburbilduz, ZIUR FUNDAZIOAREN helburua, honako lau alderdi hauetan oinarritzen da:

- a) Ezagutzaren sorkuntza bultzatzea zibersegurtasun arloan.
- b) Eragileen, enpresen eta industrien sentsibilizazioa eta prestakuntza.
- c) Zibersegurtasunarekin zerikusia duten praktikak ezartzeko aukera zabaltzea eta enpresen eskura jartzea.
- d) Prebentzioko eta esku hartzeko tresnak eskaintzea.

3. JARDUERAK

Bere helburuak betetzeko, fundazioak honelako jarduerak garatuko ditu:

Ezagutza sortzea

- E-maila akademikoak eta Zientzia eta Teknologia Euskal Sarea dinamizatzea, enprekin batera proiektuak garatzeko.
- Enpresen esku jartzea zibersegurtasun industrialeko laborategi bat
- Produktuen indutrialen segurtasun analisia
- Ikerkuntza zibersegurtasunaren arloan.

Sentsibilizazioa eta prestakuntza

- Kanpaina teknikoak
- Mintegiak, hitzaldiak, topaguneak.
- Prestakuntza espezifikorako materialak sortzea.
- Topagune akademikoak sortzea.
- Ikastaroak sortzea beste laguntzaile akademikoekin batera.

Zibersegurtasunarekin zerikusia duten ohiturak hedatzea.

- Informazioa hedatzea.
- Teknologia behatokia.
- Metodologiak eta tresnak zehaztea eta garatzea.
- Enpresa elkartuen aktiboen datu basea sortzea.
- Estatuko eta nazioarteko sareetan parte hartzea.
- Teknologia behatokia.

Prebentzioko eta esku hartzeko tresnak eskaintzea.

- Autodiagnostikorako zerbitzuak eskaintzea eta diagnostiko espezifikoak bideratzea laguntzaile sarearen bidez.
- Gertakarien aurrean erantzunak koordinatzea.
- Alertak eta ohartarazpenak.

4. HELBURUAK

ZIUR Fundazioaren zerbitzuak finkatu eta Gipuzkoako industria sarearen eta lurraldeko hezkuntza eta unibertsitate erakundeen eskura jarri diren urtea izan da 2021a. Hori dela eta, honako zerbitzu hauek jarri dira martxan:

- Bideraketarako aholkularitza
- Zibersegurtasunaren behatokia (autodiagnostikoa, azterlanak eta industria enpresekiko proiektuak).
- Zibersegurtasun industrialeko laborategia
- Gaikuntza-tailerrak
- Sentsibilizazio-kanpainak

Hona hemen 2022rako lan ildo nagusiak:

- Inbertsio-planarekin jarraitzea, ZIUR 2019-2022 Plan Estrategikoan zehaztutakoarekin. Plan hori, nagusiki, zibersegurtasun industrialeko laborategian teknologiak zabaltzean oinarritzen da.
- Gipuzkoako Industria Zibersegurtasuneko Zentroaren berezko zerbitzuak eta jarduerak gauzatzea, zibersegurtasuneko laborategia eta behatokia barne, betiere Gipuzkoako industria ehunaren zibersegurtasuneko gaitasunak indartzea bilatuz.
- Zibersegurtasunaren arloko ekintzaitzari laguntzea, Gipuzkoa zibersegurtasunean espezializatutako ekintzaitetza gune gisa kokatzeko.
- Gipuzkoako industria sarearen beharrak identifikatzea eta aztertzea, ZIUR eboluzionatzen eta merkatuaren beharretara egokitzen joan dadin.
- Plan Estrategiko berria abian jartzea

2021 ekitaldiari dagokionez, honako hauek izango dira alde nagusiak:

- Zibersegurtasuneko Laborategiaren zerbitzuak zabaltzea, teknologia berriak integratuz eta proiektu berriak garatuz Zibersegurtasuneko Behatokiaren barruan.
- 2021an Definitutako plan estrategikoa hedatzea.

2022rako honako helburu kuantitatiboak ezarriko dira:

- Laborategian 8 aktibitate aurrera eramatea hirugarrenekin lotutako jarduerekin.
- Zibersegurtasunaren Behatokiak sustatutako ekimen eta jardueretan 60 enpresak parte hartzea..
- Zibersegurtasun-zentroak erantzundako enpresen kopurua (helburu anitzekoa): 100.

5. 2022 EKITALDIKO SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

KLASIFIKAZIO EKONOMIKOA		2022
1. Kapituluak: Langileria Gastuak		322.473
2. Kapituluak: Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak		642.337
20. Errentamenduak		26.774
21. Konponketa, Mantenimendua eta Artapena		59.976
220. Bulegoko materiala		3.672
221. Hornidurak		9.792
222. Komunikazioak		6.120
226. Beste gastu batzuk		6.120
227. Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak		516.623
23. Zerbitzu arrazoiengatik ematen diren kalte ordainak		13.260
GASTU KORRONTEEN AURREKONTUA	GASTU TOTALA	964.810
34. Zerbitzu prestazioak		0
420. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Transferentzia		916.569
46. Donostiako Udalaren Transferentzia		48.240
471. Enpresa pribatuen transferentzia		0
49. Kanpoko transferentziak		0
DIRU SARRERA KORRONTEEN AURREKONTUA	DIRU SARRERA TOTALA	964.810
KORRONTE EMAITZA	TOTALA	0
6. Kapituluak: Inbertsio errealak		167.790
622. Eraikinak eta beste eraikuntzak		0
64. Altzariak eta gainerakoak		4.590
65. Informazioa prozesatzeko ekipak		163.200
FINANTZIAKETA BEHARRAK		1.132.600
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kapital Transferentzia	95%	1.075.970
Donostiako Udalaren Kapital Transferentzia	5%	56.630
DIRU SARRERA TOTALA	SARRERA TOTAL	1.132.600
GASTU GUZTIEN AURREKONTUA	GASTU TOTALA	1.132.600

6. 2022KO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

6.1 Gastu aurrekontua

Zentroaren gastu garrantzitsuak honako kontzeptu hauei dagozkie. Langile-gastuak, errentamenduak, ekipoak kontserbatzeko gastuak, kanpoko profesionalek egindako lanak, eta informazio prozesuen hornidura.

Gastuen aurrekontua guztira: **1.132.600 €**

6.1.1 Langileak

Guztira, 5 langile aurreikusten dira. 2022.

Langileen gastua, guztira: **322.473€**

6.1.2 Gastu arruntak eta ondare zerbitzuen gastuak

Gastu arrunten eta ondare zerbitzuen gastuak 642.337€ dira guztira. Honako kontzeptu hauen arabera xehatzen da:

- **Errentamenduak** 250m²-ko azalera duen lokal bat aztertzen ari gara, Donostiako Zuatzu Enpresa Parkean.

Alokairuen gastua, guztira: 26.774 €

- **Ekipoen kontserbazioa.** Kontu sail honetan euskarri teknologikoak martxan jartzeko gastuak eta mantentze lanak aurreikusten dira.
 - o **Lokala mantentzea:** lokalaren mantentze lanetatik eratortzen diren gastuen kalkulua.
 - o **Inprimaketa:** Inprimaketa zerbitzuen gastuak.
 - o **Autodiagnostiko testa diseinatzea eta abian jartzea:** On-line zerbitzuetako bat izango da enpresaren autodiagnostikoa zibersegurtasunari dagokionez.

Ekipoak kontserbatzeko gastua guztira: 59.976€

- **Bulegoko materiala** Bulegoko hainbat materialen eta suntsikorren kostuak.

Bulegoko materialen gastua guztira: 3.672 €

- **Hornigaiak.** Hornigai arruntak sartzen dira, hala nola ura edo argindarra, erregaiak eta produktu basikoak.

Hornigaien gastua guztira: 9.792€

- **Komunikazioak.** Telefonía finkoa, mugikorra eta Interneteko konexioa.

Komunikazio gastua guztira: 6.120 €

- **Hainbat gastu:** lehen mailako kolaboratzailea sare bat garatzeko. Harpidetza eta parte hartzeko kuotak atal honetan sartzen dira.

Hainbat gastu guztira: 6.120 €

- **Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak.** Betiko jarduerak egingo dituzten bertako langileez gain, zentroak hainbat arlotako langile espezializatuen laguntza izango du. Aurreikusten diren arloak honako hauek dira:

- o **Aholkularitza/ikuskaritza:** Atal honetan kanpo talde espezializatuen kontratazioa sartzen dira, hala nola ziurtapenerako kontu ikuskaritzak, memoriak eta/edo behatokiaren txostenak idaztea.
- o **Marketina eta publizitatea:** Fundazioaren komunikazio- plana garatzea, kanpoko zerbitzu espezialisten bidez, edukiak sortzea eta berariazko ekitaldiak egitea barne.
- o **Kanpoko zerbitzuak**

- Zentroaren osaketa teknologiko handiak arlo horretako kanpoko euskarri bat behar du. Nabarmentzen da zibersegurtasunean langile espezializatuen azpikontratazioa, ekipoen eta barruko sareen mantentze eta laguntza teknikoko lanak eta kanpoko komunikazio lanak egingo dituztenak.
- Prestakuntzaren arloan, fundazioko langileen prestakuntza planarekin batera, enpresen eta agenteen sentsibilizazio eta formakuntza jardueren gastuak sartzen dira. Lanbide heziketako eta batxilergoko zentroei zibersegurtasunaren arloko prestakuntza jardunaldiak aurreikusten dira, bai eta unibertsitateko graduondoko kurtsoak eta masterrak finantzatzeko laguntza ere.

- Fundazioa operatiboa izateko beharrezkoak diren kanpo zerbitzuak sartzen dira.

Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanen gastua guztira: 516.623€

- **Zerbitzuaren araberako kalte ordainak:** atal honetan, zentroetako langileen joan-etorriak, dietak eta antzerakoak sartzen dira.

Zerbitzuaren araberako kalte ordainen gastua guztira: 13.260 €

6.1.3 Inbertsio errealak

- **Altzariak eta lanabesak:** Mota honetako instalazioentzako erabiltzen diren altzariak

Altzarien eta lanabesen ataleko inbertsio errealak: 4.590 €

- **Informazioa prozesuetarako ekipamenduak** Zentroaren operatiboa garatzeko beharrezkoa den plataforma teknologikoa garatzeko eta mantentzeko beharrezko inbertsioak jasotzen dira (HW, SW eta beste beharrezko elementuak)..

Informazioa prozesatzeko ekipamenduen inbertsio errealak: 163.200 €

6.2 Sarreraren aurrekontua.

ZIUR Fundazioaren negozio ereduak 3 sarrera iturri nagusi ditu. Lehenengoa eta gehiengoduna iturri publikoetatik dator. Bigarrena, Fundazioak berak dituen zerbitzuen hornikuntzatik dator.

Sarreraren aurrekontua, guztira: **1.132.600€**

- **Finantzaketa publikoa:** Gehienbat Gipuzkoako Foru Aldunditik dator eta Donostiako Udalak osatzen du.

Diru sarrerak finantzaketa publikoagatik: 1.132.600€

2022. URTEKO AZALPEN TXOSTENA

ZIUR FUNDAZIOA, Gipuzkoako Zibersegurtasun Industrialeko Zentroa

ZIUR Fundazioaren zerbitzuak finkatu eta Gipuzkoako industria sarearen eta lurraldeko hezkuntza eta unibertsitate erakundeen eskura jarri diren urtea izan da 2021a. Hori dela eta, honako zerbitzu hauek jarri dira martxan:

- Bideraketarako aholkularitza
- Zibersegurtasunaren behatokia (autodiagnostikoa, azterlanak eta industria enpresekiko proiektuak).
- Zibersegurtasun industrialeko laborategia
- Gaikuntza-tailerrak
- Sentsibilizazio-kanpainak

Hona hemen 2022rako lan ildo nagusiak:

- Inbertsio-planarekin jarraitzea, ZIUR 2019-2022 Plan Estrategikoan zehaztutakoarekin. Plan hori, nagusiki, zibersegurtasun industrialeko laborategian teknologiak zabaltzean oinarritzen da.
- Gipuzkoako Industria Zibersegurtasuneko Zentroaren berezko zerbitzuak eta jarduerak gauzatzea, zibersegurtasuneko laborategia eta behatokia barne, betiere Gipuzkoako industria ehunaren zibersegurtasuneko gaitasunak indartzea bilatuz.
- Zibersegurtasunaren arloko ekintzailetzari laguntzea, Gipuzkoa zibersegurtasunean espezializatutako ekintzailetza gune gisa kokatzeko.
- Gipuzkoako industria sarearen beharrak identifikatzea eta aztertzea, ZIUR eboluzionatzen eta merkatuaren beharretara egokitzen joan dadin.
- Plan Estrategiko berria abian jartzea